

Ze barri

Mallabiko Udal Aldizkaria

4 zeb. 2008ko ABENDUA



Sarrera

Aurtengo urtea ia amaiturik dagoela eta 2009aren atarian udal jardunaren ildo nagusiak errepasatzeko une egokia izan daiteke.

Hemen interes orokorreko asmo eta ideiei lekua egingo diegu, horiek herriaren etorkizuna markatuko dituztenak direlako eta garrantzitsuena **Mallabiko Planeamentu Orokorra** egituratzea izango litzateke. Planeamentu Orokor horrekin zernolako Mallabia nahi dugun etorkizunean diseinatzen da. 2009 eta 2010. urteak oso garrantzitsuak izango dira prozesu horretan eta, zer esanik ez, herritarren parte-hartzeak funtsezkoa izan behar du. Planeamentuaren aurrerapena egin bezain laister parte-hartze egutegia finkatuko da, helburuak eta jarraitu behar ditugun irizpideak aztertzeke. Hori guztia jendaurrean azaldu eta eztabaidatuko da. Udalak planeamentua gainbegiratu duen batzorde berria osatuko dau eta bertan mallabitarren iritzia funtsezkoak izango dira.

Gaur egun 1995ean onartutako Planeamentuarekin gabiltza eta esan beharrik ez dago berau agortuta dagoela. Gizartea aldatzen den neurrian Planeamentua ere aldatzea komeni da eta 1995koak hainbat aldaketa eduki du, baina argitu beharra dago aldaketa horiek ez direla Planeamentu osoarenak izaten, gune zehatz batzuenak baino. Adibidez, azkenik Kalbarixoko eta Zesterueneko etxeak eraikitzea posible egiteko aldatu zen.

Aldaketak urtero egoten dira, baina hainbeste aldaketarekin Planeamentua errebisatzeko unea heltzen da eta hori da, hain zuzen, Mallabiko Udalak aurten onartu duena.

2008 honetan ere **euskararen erabilera** sustatu eta bultzatuko duen planerako pausoak garrantzitsuak izan dira: UEMAko partaide egin gara, euskararen ordenantzak martxan daude, Euskararen Batzordea osa-

tu da, Kontseiluarekin orain akordioa sinatuko dugu, hizkuntza plana ere martxan dago jadanik.

Etxebizitza alorrean, hasierako asmoak (Palazio inguruko etxe tasatuak) aldatu ditugu: Kalbarixoko aldapan eta Zesterueneko etxe ingurukoak hobetsi ditugu. Momentu honetan Jaurlaritzako Lur Antolamendurako Saitetik pasa eta gero, Aldundiaren onspena jaso behar du proiektuak. Jaurlaritza eta Foru Aldundiarekin izan ditugun elkarrizketetan begi onez ikusi dute proiektua. Hala ere, etxebizitzaren egitasmoa nahi baino astiroago doa.

Jai parte-hartzaileak, kultur agenda indartzea, pilotalekuaren aprobetxamendua, kirol guneak irekitzea, informazioa zabaltzea, Goitondoko ekosistema industriaren proiektua, auzoen seinalizazioa, zabor biltzetaren zentralizazioa... hainbat ekimen martxan daukagu.

Bai, **beste Mallabia bat** posible da. Baina denok nahi dugun Mallabia horretan guztiok parte hartu behar dugu, ezin dugu utzi gutxi batzuek biharko Mallabia diseinatu dezaten. Eskaintzen dizkiguten parte-hartzerako bideak aprobetxatu behar ditugu. Ideiak bota bakarrik ez, landu egin behar ditugu, bidegarriak diren edo ez aztertu, batzarretan konpartitu. Ika-si, ohitu, parte hartzen saiatu egin behar gara, eta ez dugu inoiz pentsatu behar gure ideiek besteenak baino gutxiago balio dutenik.

Ez da nahikoa lau urterik behin botoa emanaz gero gure lana amaiturik dagoenik pentsatzea. Elkarrizketa, ideiak konpartitzea, bideak aurkitzea, parte hartzea, ilusioa, lana banatzea... hor daude gakoak. Horrela sortuko dugu guztion Udala, benetan Udal demokratikoa eta eraginkorra. Proposatzen genuen ideia ha forma hartzen joan dela eta burutzen ari dela ikusteak poztuko gaitu. Aprobata egin gura duzu?

Azken hilebete hauetan Udal Osoko Bilkuretan landutako gaiak

Uztailaren 29an

- UAR-6 eta UAR-7 (Kalbarixoko etxe zaharrak eta Zesterueneko etxe inguruak) jardueraren unitate berriak mugatzeko udal-planeamentuaren arau subsidiarioak puntualki aldatzeko hasiera onartzeko proposamena aurrera atara da.

Irailaren 12an

- Udal Pilotalekuaren atzealdeko euri urak jaso eta lurjauziak ekiditeko espedientearen irekiera. Espedientearen tramitea premiazko zatitatu da, obrak 115.257,88€ presupuestatu dira eta proiektua onartu da.
- Gereako lurjauziak sortutako kalteak konpondu eta bertako drenaje lanak kontratatzeke espedientearen. Lan hauek ere premiazko zatitatu dira eta lanetarako 106.282,37€ presupuestoarekin proiektua onartu da.

Irailaren 25ean

- Lejartza inguruan lurrak erosteko proposamena onartu da.
- Frontoi atzeko konpontze lanak Miramar Gutinados S.A. enpresari adjudikatzea.
- Gereako lur-jauzia konpontzeko lanak Bermeosolo enpresari adjudikatzea.
- Etorkinak kanporatzeko Europako zuzentarauaren aurkako mozioa onartu da.
- EHAK eta EAE-ANVren ilegalizazioen aurkako mozioa onartu da.

Urriaren 21ean

- UAR-6 eta UAR-7 (Kalbarixoko etxe zaharrak eta Zesterueneko etxe inguruko lurzorua) jardueraren unitate berriak mugatzeko udal-planeamentuaren arau subsidiarioak puntualki aldatzeko behin-behinean onartzeko proposamena. Aurkeztutako alegazio bat parzialki onartu da eta Euskal Herriko Lurralde Ordenazioaren Komisionari bidaltzea adostu da.
- Eskoletako futbito pista estaltzeko proiektua bi urtean egitea onartzeko proposamena onartu da.
- Mallabiko udal-langileen lan baldintzak 2008-2010 Udalhitz hitzarmenak prosatutako baldintzetara egokitzea.
- Bilboko Administrazio Auzitegi Epaitegiak ofizioz bidalitako "Euskal preso eta iheslariak etxera" logoa erabiltzaileari buruzko kautelazko suspentsioaren inguruan informatu dio alkateak Udalbatzari. Logoa erabiltzen jarraitzea erabaki da, suspentsioa derrigorrezkoa izan arte.

Azaroaren 3an

- Aurrekontu aldaketa proposamena onartu da.
- Gimnasioa montatzeko makinak ekartzeko kontratazio espedientearen onartu da.



Goita auzoa eta trabakua arteko bidegurutzeara

Bizkaiko Foru Aldundiko Herri-lan Sailean zerbait mugitzen ari da. Aurtego otsailaren 18ko Batzar Nagusietako bilkuran, EAJren aurkako botoei eta PSOEn absentezkoari esker, Goita auzoa eta Trabakua arteko bidegurutze horri Mallabiko Udalak proposatutako irtenbidea atzera bota zuten. Udal honek lanean jarraitzeko asmoa agertu zuen.

Hainbat idazki eta telefono deiren ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak diru partida garrantzitsua emango du Berriztik Markinarako bidea eta Osmatik Mikrodekora arteko bidea konponketzeko. Lanak 2011ra bitartean luzatuko dira. Mallabiko Udalak uztailearen 11n Herrilan Sailaren jakinarazpena jaso zuen, bi proiektu horien erredakzioa hasita dagoela jakinarazteko.

Bizkaiko Foru Aldundiko Herri-lan Saileko egitasmoetan Mallabiko lurraldea zeharkatzen duten errepideetako puntu beltz garrantzitsuenetarikoa jasotzen direla jakitea poztekoa da, Hanbrekoa oraindino inon jasota egon ez

arren. Errepide horietan zer lan aurrera eramango duten kezka sortu du, Mallabitarren iritziak kontuan hartuko dituzten, zenbait proposamen eztabaidatzeko aukerarik egongo den edo guztia erabakita dagoen eta euren era-

Oinezkoen alternatiba bat eman beharko die eta Udal hau horretan ahaleginduko da.



baki hori bere horretan hartzeko edo osotasunean ezeztatzeko eskatuko ote duten.

Horrela, Herrilan Sailak Goitako bidegurutzerako proposamena Udaletxera bidali dute (orain arte jaso den bakarra). Egia esan, bidegurutze horretan edozer egin da ere beti orain dagoena baino hobea izango da. Baina Udalak ez du proposamen hori begi onez

ikusten, autoak eta autoen segurtasuna bakarrik kontuan hartzen dituelako. Oinezkoak ahaztuta ditu: paseoan dabilzanak eta errepidea zeharkatu behar dutenak, autobusa hartu behar dutenak...

Beraz, hurrengo pausoa Batzar Nagusietako taldeekin hartu-emanetan jarraitzea izango da eta, zelan ez, Bizkaiko Foru Aldundiarekin ere. Oinezkoen alternatiba bat eman beharko die eta Udal hau horretan ahaleginduko da. Errepide gaineratik joango litzatekeen pasabidea momentu honetan konpobiderik egokiena izan daiteke, lur azpiko tunela otsailean baztertuta geratu baitzen. Pasabide hori lortzeko ahalegin guztiak egingo ditu Udalak.

Hona hemen Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan Sailaren Trabakuko bidegurutzerako proposamena. Goita auzorako sarrera errazteko, errei bat gehiago egiteko asmoa dauka; norabide aldatuta eta BI-633 errepidearekin elkargunea berregokitzeko intentzioa ere badauka



Mallabiko trafikoko arazoak

Azken urte hauetan auto kopurua bikoiztu da eta horrek trafikoko arazoak ere bikoiztu ditu gure herrian: gauean ez dago denontzako aparkalekurik, bakoitzak bere etxe ondoan utzi utzi guran, besteenganako errespeturik eza eta besteen eskubideak kontuan ez hartu...

Mallabiko Udalak udalerriko trafikoko eskumena Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzaren esku utzi zuen 2002ko ekainaren 27an. Ondoren, 2002ko uztailearen 30ean, Jaurlaritzak kompetentzia hori bere gain hartzen duela jakinarazi zion. Azkenik, 2003ko urtarrilaren 17eko ebazpenak Mallabiako trafikoko arazoetan kompetentziarik ez duela eta Trafiko Zuzendaritzak eskumen hori bere gain hartzen duela jakinarazi zion Udalari, EAEko antze-

“Azken urte hauetan auto kopurua bikoiztu da eta horrek trafikoko arazoak ere bikoiztu ditu”

rako egoeran dauden beste herriekin batera.

Beraz, laster Ertzaintzaren isuna jaso dezakegula kontuan hartuta, ohitura egokiak hartzen joatea komeni zaigu.

Herriko trafikoko puntu beltzak

- Goitondo poligonoa: asteegunetan kamioi pilaketak sortzen dituzten arazoak. Alde batetik, Servando Fernándezen inguruan adibidez eta, bestetik, asteburuetan zenbait gaztek egiten dituzten auto lasterketak, derrapeak eta abar.
- Mallabiko kaskotik, San Pedro eta Goitondorako bide municipala: hamar tonatik gorako ibilgailuek (kamioiek) bide hori debekatuta daukate eta, Ermua ez zeharkatzeagaitik, hainbat kamioi bertatik pasatzen da, bidea izorratuaz eta, autoentzat leku gutxi egoterakoan, elkar gurutzetakoan, istripu arriskua sortuaz.



- Anbulategian.
- Antsoagan: gauez.
- Intxaurti kalea: haurtzaindegiko espaloia gainean aparkatuaz.
- Mikel Zaratetik parkerako jaitsiera.
- Kalbarixo kalea.
- Espaloiak okupatzea.
- Kamioiek kaskoan aparkatzea.
- Zebrabideak okupatzea.
- Elbarrituen aparkaleku plazarak baimenik ez dutenek aparkatzea.

Ertzaintzaren isunak

Udalak, azarotik aurrera, txarto dauden ibilgailuei isun itxurako oharra ipiniko die. Bertan, ibilgailuaren jabea txarto jokatzeko ari dela esango zaio. Horren helburua gidarien ohitura txarrak zuzentzea izango litzateke. Beti abisua jasotzea isuna baino hobea izango da. Baina urtariletik aurrera Ertzaintzak aipatutako puntu beltzak arretaz zainduko ditu eta orduan gidari isunduentzat komerikak hasiko dira. Gogoratu Ertzaintzak jarritako isunak direla eta ez Udalak; beraz, Trafiko Zuzendaritzatik kudeatuko direla eta ez Udaletik.

Udalak, bere aldetik, heziketa kanpainak horretaz gainera, Mikel Zarate kalean gauez Ermutik herri sarrerako eskuineko espaloia gainean aparkatzea baimenduko duen seinalea ipiniko du. Elizoste kalean norabide bakarra ipini eta aparkaleku plaza gehiago sortuko dira. Egun berezietan (jaietan, hiletetan...), lege-hauste oso larria ez bada,

Ertaintzarekin isunik ez jartzea adostu da. Era berean, kaskoan radarririk ez jartzeko eskaera kontuan hartu dute eta isunak ohiko lege-hausteei batez ere ipiniko dizkie.

PROBLEMAS DE TRÁFICO

El pasado 4 de noviembre miembros de la corporación se reunieron con los responsables de Tráfico de la comisaría de la Ertzaintza de Eibar. En dicha reunión, se recordó cómo el 17 de enero del 2003 se publicó la resolución en la que la Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco asume las competencias de seguridad vial en el municipio. Se marcaron una serie de puntos negros existentes:

- Polígono de Goitondo.
- Carretera Mallabia- S. Pedro- Hambre, prohibida para la circulación de camiones.
- Accesos al ambulatorio.
- Ansoaga, por la noche.
- Parque de Intxaurti, frente a la guardería.
- Kalbarixo kalea.
- Aparcamiento de camiones dentro del casco urbano.

Durante dos meses (desde noviembre) se lleva realizando una campaña de concienciación en la que el Ayuntamiento pone unas papeletas semejantes a multas, en las cuales se informa al propietario del vehículo infractor que debe corregir su actitud por el bien de todos, además, de que próximamente puede ser sancionado. Se acordó la colocación de postes en pasos de peatones y, sin embargo, se permitirá aparcar por las noches sobre la acera derecha de la calle Mikel Zarate, colocándose una señal al respecto. En días de fiesta, funerales u otros acontecimientos donde la concentración de coches y personas sea mayor del habitual sólo se impondrán sanciones a las infracciones muy graves. Aunque la Diputación y Ertzaintza instan a retirar los badenes, los consideramos suficientes para regular la velocidad dentro del casco urbano, evitando radares. Se pondrá como dirección única la calle Elizoste y se marcará para que se pueda aparcar en batería el próximo año. Se penalizará especialmente a los conductores reincidentes.

Andra Mari 08 • Gazte Eguna 08 • Urriko Jaixek 08



Pilotalekuan gimnasioa irekiko da

Mallabiko kirol aukerak ugaritze-ko asmoz hainbat proiektu mar-txan dago. Udan eskoletako lanak aurrera eramaterakoan, bertako frontoia eta eskolaren artean hesi bat eraiki zen, frontoirako sarre-ra librea posible izan daitezen, aste-buruetan ere. Garbi dago eskolako ikas-ordutegian eskolako ikasleek erabiltzeko lehentasuna eduki be-har dutela.

Eskolako frontoi ondoko aldage-lak berritu eta handitu dira, ikas-leek klase orduetan eta futbito tal-dekoek erabil ahal izateko.

Futbito zelaia estaltzeko proie-ktua abendu honetan lehiaketa publikora aterako da eta dato-rreren udarako amaiturik egotea aurreikusi da. Beraz, bertan fut-bito partiduak eta saskibaloioak

ere jokatu ahal izango dira.

Pilotalekuan dagoen karrajua es-tali zan eta bertan gaur egun zen-

Mallabitar guztioi bazkide izateko aukera zabalduko zaie

bait ikastaro gauzatzen da. Karraju horren gainean gimnasioa ipiniko da, abenduko asto-probak amaitu eta gero.

Muskulazio gelaren plano goiko hau izango litzateke. Horretaz

gain, spinning gela ere egongo da eta zenbait ikastaro egiteko aukera izango da.

Nola funtzionatuko du pilotalekuan urtarriletik aurrera?


Mallabitar guztioi bazkide izateko aukera zabalduko zaie, baita kanpokoei ere. Gimnasioa bazkideek bakarrik erabili ahal izango dute (kontuan hartu behar da ,gaur egungo araudiaren arabera, gimnasioko erabiltzaileak hamasei urte beteta eduki behar dituela). Bazkideek eta bazkide ez direnek ezberdin ordainduko dute pilota-kantxa alokatzeagatik. Hori guz-tia azaroaren 25ean Kultur Etxean egin zen herri batzarrean azaldu zen. Beherago ere bazkide izateko eta kantxaren alokairurako 2009ko salneurriak agertzen dira:



	BAZKIDETZA URTEKO KUOTA		GIMNASIOKO HILEKO KUOTA	
	ERROLDATUAK	EZ ERROLDATUAK	BAZKIDEAK	BAZKIDE EZ DIRENAK
FAMILIARRA 18 URTERA ARTEKO SEME-ALABAK BARNE	50€	100€		EZ DAGO AUKERARIK
BANAKAKOA 18 URTERA ARTE	15€	50€	6€	EZ DAGO AUKERARIK
BANAKAKOA 18 URTETIK AUERRERA	30€	65€	6€	EZ DAGO AUKERARIK
BANAKAKOA PENTSIODUN, ELBARRITUAK ETA LANGABETUAK	15€	50€	6€	EZ DAGO AUKERARIK

	ARGIRIK GABE	ARGIAREKIN
BAZKIDEAK URTEKO KUOTA ORDAINDUTA	3€	6€
BAZKIDE EZ DIRENAK	6,50€ ETA SARRERA	12,50€ ETA SARRERA

Lanegunetan hamasei urtetik beherakoek kantxako txoko bat erabili ahal izango dute, pilota eskolakoek horren beharrik ez badaukate, pilotan jolastu nahi badute. Asteburuetan ere, kantxa alokatuta ez badago, jolastu ahal izango dute.



SE MONTARÁ UN GIMNASIO EN EL FRONTÓN

EN DICIEMBRE, TRAS TERMINAR LAS PRUEBAS DE BURROS, SE EMPEZARÁ A MONTAR UN GIMNASIO SOBRE LA TARIMA QUE CUBRE LA PISTA DE PRUEBAS. JUNTO AL GIMNASIO, SEGÚN MUESTRA EL PLANO DE ARRIBA, SE MONTARÁ TAMBIÉN UNA SALA DE SPINNING EN EL LOCAL VACÍO QUE HAY SOBRE LAS OFICINAS Y AL CUAL SE ACCEDE POR LAS GRADAS.

CON TODO ESO Y, ATENDIENDO A LOS CURSILLOS QUE PRETENDE ORGANIZAR LA EMPRESA QUE LLEVA EL FRONTÓN, SE AMPLIARÁ EL ABANICO DE POSIBILIDADES PARA PRACTICAR DEPORTE EN EL MUNICIPIO DE MALLABIA.

SE DARÁ LA POSIBILIDAD DE PODER HACERSE SOCIO DEL FRONTÓN Y, ASÍ, EL PRÓXIMO AÑO LAS CUOTAS DE ALQUILER SERÁN DISTINTAS PARA UNOS Y OTROS. LOS QUE NO SEAN SOCIOS NO PODRÁN UTILIZAR LOS SERVICIOS DEL GIMNASIO.

Etorkinak Mallabian

Europar Batasun kanpotik gurera lan bila datozen etorkinen kopurua 2000tik hona indartsu hazi da. Gure lurraldea eurentzat helburu bihurtu da, eta jende andana hori gureganatzea eta gure gizartean integratzea erronka bihurtu da guretzat. Etorkin horiek gure herriari onura ekonomikoa ekartzen diote; euren eskarmentua eta ohiturak guztiontzat aberatsak dira, baina beharrianak ere gehitzen dira.

Mallabian, 2008ko urtarrilean, 28 etorkin erroldatuta zeuden, herrian erroldatutakoen %2,38. Kopuru hori Euskal Autonomia Erkidegoko eta Bizkaiko batez bestekoaren azpitik dago, hurrengo taulak erakusten duenez.

2007KO URTARRILA					
ESTATUA		EAE		BIZKAIA	
ZENBAT	%	ZENBAT	%	ZENBAT	%
4.519.554	9,9%	98.524	4,5%	50.092	4,3

Hona hemen Mallabia inguruko herrietan etorkinen kopuru-banaketa:

HERRIA	ERROLDATUTAKOAK	ETORKINAK	%
MARKINA-XEMEIN	4.676	449	9,6
BILBAO	353.168	21.890	6,2
ETXEBARRIA	823	46	5,59
DURANGO	27.476	1.374	5
BERRIZ	4.759	200	4,2
IURRETA	3.844	160	4,16
SORALUZE	4.062	164	4,04
EIBAR	27.404	1.018	3,71
ZALDIBAR	2.888	105	3,64
ELGOIBAR	10.893	383	3,52
ERMUA	13.262	522	3,21
MUNITIBAR-ARBAITZATEGI GERRIKAITZ	381	9	2,36
MALLABIA	1.162	24	2,07
ELORRIO	7.091	141	1,99

Urtetik urtera, azkenaldi honetan, etorkinen kopurua hazten joan da. Mallabian, 2000an sei etorkin zeuden, 2002an zortzi, 2005ean hamaika eta 2008an 28. Hurrengo taulak Mallabiko etorkinak nondik etorri diren azaltzen du:

	GUZTIZ	% ZENBAT
MAROKO	7	25,0%
PORTUGAL	5	17,9%
BOLIVIA	4	14,3%
COLOMBIA	3	10,7%
BRASIL	3	10,7%
ERRUMANIA	2	7,1%
EKUADOR	2	7,1%
ERRUSIA	1	3,6%
ITALIA	1	3,6%
GUZTIRA	28	100%

Mallabian andrazko eta gizonezkoen kopuruak etorkinen jaioterriaren arabera dira. Horrela, Bolivia, Colombia eta Brasildarrak andrazkoak dira gehiengo osatzen dutenak. Marokotik eta Portugaleko etorkinen artean gizonezkoak dira gehien.

INMIGRANTES EN MALLABIA

Desde el año 2000 se ha incrementado con fuerza la entrada de población procedente, en especial, de países no comunitarios y que llega movida por la búsqueda de empleo.

Europa ha pasado pasado, así, a convertirse en un lugar de destino, lo cual nos tiene que llevar a afrontar la necesidad de ir recibiendo e integrando a todas estas personas que a través de su trabajo realizan una aportación clara a la economía del país de acogida y que traen consigo su formación y su cultura, pero también sus necesidades.

La media de inmigrantes en Mallabia es de 2,38%. Queda por debajo de la media del Estado, 9,9%, del País Vasco, 4,5% y de Bizkaia, 4,3%. En Mallabia están empadronados 28 inmigrantes (enero de 2008). Con respecto a la procedencia de estos inmigrantes, siete (25%) vienen de Marruecos, cinco (17,9%) de Portugal, cuatro (14,3%) de Bolivia, tres de Colombia, tres de Brasil, dos de Rumanía, dos de Ecuador, una persona de Rusia y otra de Italia.

Las diferencias entre hombres y mujeres en Mallabia se acentúan entre unas y otras nacionalidades. Así, la población inmigrante de Bolivia, Colombia y Brasil es básicamente femenina y, siguiendo la tónica general en nacionalidades, en la comunidad de Marruecos y Portugal la presencia de hombres es superior al de mujeres.

Laburbilduta, hainbat barri

EGURALDIAK PARKEKO LANAK ATZERATU DITU

Beharrezkoa genuen euriak udazken honetan hainbat lan atzeratu ditu, parkekoak, besteak beste. Umeentzako txintxaunak ipini eta jolasgune hori moldatzeko lan handia egin zuten udal beharginek, euria zela-eta, baina lanok amaitu zituzten.

Umeen parkea eta plaza lotuko duen bidegorria, baina, oraindino geldituta dago. Eskailerak saihesteko, Udaletxe atzeko Antsoagara doan bidegorriaren luzapena ere geldituta dago.

Lan horiek 2008ko amaierarako amaituta egon beharko lirakeke. Datorren urtean parkeko zorua konpondu eta komun publikoak bertan ipintzeko asmoa dago.

ZINE SAIOAK, KULTUR ETXEAN

Futbito taldeak antolatuta, hainbat igande arratsaldetan umeentzako zinemaldi saioak eman dira Kultur Etxeko aretoan. Aretoa irailean horrelako saioak bertan izateko egokitu zen. Horretarako, bertan pantaila handia, proiektorea eta DVD berria ipini ziren. Horrekin batera, bozgorailuak sabaira lotu ziren. Horrela, futbito taldeak antolatzen dituen saioak oraindino atseginagoak izango da. Euro baten truke, pelikula, koka-kola eta palomita dituzue. Beraz gazteok, ez ezazue aukera galdu eta igande arratsalderako beste proposamen bat gehiago da-eta.

MALLABIAN EUSKARA BATZORDEA OSATU DA

Gure herrian euskal hiztunen eskubideak bete ahal daitezten, Mallabian euskararen erabilerak mugarik eduki ez dezan, euskara ikasi nahi duenak hala egin dezan, euskaraz bizitzea arlo sozial eta administratiboan posible izan dadin beste urrats bat eman dugu. Euskara Batzordea azaroan osatu da eta berau honakoek osatzen dute: Orraitioko bi kidek, AEK-k, UEMAko teknikari batek, Udaleko langile batek eta Herri Eskolako beste langile batek.

Udaleko Hizkuntza Plana aztertu eta herriko kaskoan euskararen erabilera bultzatzeko planaren diseinuaren aurrerapena egin zen, hainbat ekintza eta proposamen mahaigaineratuz. Aldaketok aldizkari honetan edo udal ohar eta bandoetan igarriko zuten: euskararen presentzia euskaldun kopurura hurbiltzen da, euskararen presentzia herriko erabileraren araberakoa da. Batzorde horretako ondorioa besterik ez da. Erabileraren aldeko beste hainbat proposamen eta ekintza adostu dira. Adibidez, Mallabian euskara ikasten ari diren bi taldeek elkarturik hainbat ostiral arratsaldetan egingo dituzten txikiteoak, mintzapraktika egiteko asmoz eta kaskoa euskaldundu nahian. Ea euskaldun zaharrak ere bertan parte hartzera animatzen diren.

Azkenik, Udalak Kontseiluarekin abenduan hitzarmen bat sinatzeko asmoa du, Mallabiko industria-guneetan ere euskararen erabilera eragiteko asmoz.

Gogoratu, euskara da euskaldun egiten gaituena eta hori gure esku dago.



MALLABIKO
UDALA

TDT ERREPIKAGAILUA MARTXAN DA JADANIK

Dagoeneko Mallegoin jarri dan TDTko errepikagailua martxan da (Lurreko Telebista Digitala). Bertatik zenbait telebista kate ikus daitezke:



KANALA	TELEBISTA KATEA
34	LOKALA
63	TVE1, TVE2, 24 HORAS, CLAN TV
64	ETB1, ETB2, ETBSAT, CANAL VASCO
66	TELEDEPORTE, VEO, SET EN VEO, NET TV, TIENDA EN VEO
67	CUATRO, CNN+, LATINO, LA SEXTA
68	TELE5, TELE5 SPORT, TELE5 ESTRELLAS, FLYMUSIC
69	ANTENA3, NEOX, NOVA, HOGAR10

Mallabiko herriak bi errepikagailuetatik jasotzen du telebista seinalea: Oitz eta Karakateko errepikagailuetatik. Gure geografia korapilatsuagatik herriko hainbat lekutan eta kaskoan, batez ere, seinalea ez da batetik zein bestetik ganoraz jaso izan. Horrela, badira hainbat urte ETB, adibidez, ez dela ikusi ahal izan kaskoko hainbat etxetan. Hori konpondu guran, errepikagailu berria ipini da. Horri esker, telebista seinalea indartsuago jaso ahal izango da kaskoan eta Berano inguruko hainbat baserrietan ere.

Udaberrian herriko hainbat auzo eta lekutan seinalea neurtu zen. Neurketa horien ondoren, teknikoek Mallegoi inguruan errepikagailua jartzea eta seinale kaskarra zuten lur eremuetara zuzentzea komeni zela erabaki zuten, hau da, Karakatetik eta Oitzetik seinalea jaso ezin zuten guneetara.

Orain errepikagailua ipini duen enpresak protokolo bat jarraituko du: inguruko herrietako antenistei zein den une honetan herriko egoera azalduko die eta herriko hainbat lekutako neurketen emaitzak jakinaraziko dizkie. Antenistak herritarrekin har-tu-emanetan jarriko dira.